

ZUMAIAN

Harrijasotzaile eta aizkolariak jaun eta jabe izango dira gaur

INAKI BASTARRIKA / ZUMAIA

Ostiralean hasi eta atzo egun osoan jaigiroa nagusi izan zen Zumaiako kaleetan. Musika bandaren kontzertu berezia, profesionalen arteko pilota partiduak eta Taun Taun antzerki taldearen emanaldia izan genituen atzo, gauean Pirotecnia Zaragozanaren suziri jaialdia ikusi aurretik.

Gaurko egunak ez du atzokoak bezainbat ekitaldi izango. Goizean goiz Lizarrako dultzaineroek kalejiran Zumaiako kaleetan zehar gogoz putzegin-go dute lotiak esnatu eta egunari lehen brizdarak emateko, eguerdi aldera kontzertua eskainiko dute Eusebio Gurrutxaga plazan. Eguerdiko ordubatean herri kirolen jaialdia egingo da plaza berean. Harrijasotzaile eta aizkolari bikote bi euskal pentathlonean lehiatuko dira. Mugerza aizkolaria eta Zelai harrijasotzailea ari-tuko dira Aierbe aizkolaria eta Atxa harrijasotzailearen aurka.

Bi bikote hauek bost proba desberdin egin behar dituzte: aizkoran, harrijasotzen, txinga eramaten eta korrika. Aizkorari dagokionean bi era desberdinetako lana izango dute, batetik ohizko etzandako enbor ebakitzea eta bestetik zutikako enbor ebakitzea, Australian ohizkoa den bezala. Euskal pentathlona bukatu bezain laster Mugerza II, Aierberen aurka ari-tuko da enbor bakarreko lanean.

Arratsalde partean 19.00etan, Eusebio Gurrutxaga plazan, haurrentzat jaialdi berezia ospatuko da Azkona taldearen eskutik. Ordu berean Gaztetxoan Musika Bandak kalejira egingo du bazterrak alaituz. Gaualdeko jai giroa sortzeaz Tximeletak txaranga arduratuko da eta gauerditik aurrera Nervion musika taldearekin dantzaldia izango da.

Astelehena gozamen eguna dute hurrek Zumaiian, goiz eta arratsalde jolas eta denbora pasarako jolaslekua prestatuko

zaie. Gaueko hamar t'erdietan Eusebio Gurrutxaga enparantzara bil gaitzke, han 'Las aventuras del Baron Munchausen' filmea proiektatuko dute. Jaiek izango dute jarraipenik hurrengo asteburuan, uztailearen 6 eta 7an artisautza feria eta Dantzari Txiki eguna izango dira hurrenez hurren ekitaldi nagusienak ●



Dantzari Txiki egunak datorren igandea bete betean hartuko du

I.B. / ZUMAIA

San Pedro jaiek ez dute asteburu honetan beren azkena izango. Datorren asteburuan ere zenbait ikuski-zun eta saio aste honetakoei jarraituko zaizkie. Aipagarriena igandeko Dantzari Txiki eguna da ezberrik gabe, zortzi herri desberdinetatik inguratuko bait dira dantzari txikiak

Zumaira. Azpeitia, Azkoitia, Legazpi, Bergara, Mutriku, Eibar, Zarautz eta Getariako dantzari taldeei goizeko 10.00etan egingo zaie ongi-etorria Gurrutxaga plazan.

Hamarretakoa egin ondoan dantzari guztiek kalejira egingo dute herriko hainbat puntutan euskal dantzak dantzatzu. Eguerdiko inguruan dantza talde bakoitza auzo banatara joango da eta dantzak egingo dituzte neska-mutil koxkorrek.

Ordubiak ingururako, plazan elkartuko dira dantzari guztiak bazkaltzera elkartetara edota eskaintzen diren familietara joateko. Dantzari-eren bat bazkaltzera eraman nahi duenak Mertxe argazkigintza, Luis Mari Aizpurua garbidenda edo Basadi auzategiko Ogi Berri dendan eman dezake izena. Arratsaldeko 5etan bat egingo dute berriz ere dantzari guztiek Eusebio Gurrutxaga plazan. Bertan guztiek batera Agintarien dantza eta Agurra dantzatuko dituzte; jarraian mutil guztiek Txo-txongilo eta Banakoa dantzak eskainiko dituzte, ondoren neskek Zinta Dantza gipuzkoarra eta Uztai Dantza bizkaitarra. Dantzaldi hauekin emango zaio amaiera Dantzari Txiki egunari.

Dantzari txiki eguna igandean ospatuko da, baina bezperan ere izango da zer ikusirik eta non parte harturik. Egun osoz Euskal Herri guztiko hamabi artisauk beren lanak erakusgai izango dituzte.

Eguerdian Urolaren itsasoratze gunean piraguisimo lasterketak egingo dira kategoria desberdinetan eta arratsaldeko 5etan Irratiz Kokatze txapelketa egingo da irratizaleentzat. Eskolarteko zesta punta txapelketaren azkenak arratsaldeko 6etan jokatu dira Odieta. 11etan Guk euskal folk taldeak emanaldia eskainiko du Plazan. Igandeko gauzarik aipagarriena Dantzari Txiki eguna 2. urteko kade-entzatzat dagoen txirindulari lasterketarekin batera ●

Harrijasotzaile eta aizkolari bikote bi euskal pentathlonean lehiatuko dira. Mugerza eta Zelai buruz buru arituko dira Aierbe eta Atxaren aurka ●



Zelai Mugerzarekin batera arituko da euskal pentathlonean.

Arratsaldeko 5etan bat egingo dute berriz ere dantzari guztiek Eusebio Gurrutxaga enparantzan, eta bertan denak batera dantza egingo dute ●

Gaurko egitaraua

- ☞ 9.00etan dultzaineroen kalejira.
- ☞ Eguerdiko inguruan Dultzaineroen kontzertua Plazan.
- ☞ 13.00etan herri kirol jaialdia plazan.
- ☞ 19.00etan haurrentzako jaialdia Azkona taldearekin.
- ☞ 22.30etatik aurrera Tximeletak txaranga kalez kale.
- ☞ 24.00etan Nervion musika taldearekin dantzaldia.

Mertxe Aizpurua

opariak

elektrogailuak

Etkezaretza, 6 20750 ZUMAIA Tfnak.: 86.10.78 / 86.11.65



ENARA, S.L.
INPRIMATEGI

AMAIA PLAZA, 15 ZUMAIA TFNA.: 86.24.58

MIKEL HARATEGIA

◆ Galiziko idi txuletak
◆ Bertako txekorra

J.Belmonte 2 ZUMAIA 86.04.24

LANDARE

loredenda

Baltasar Etxabe, 5

Tfna.: 86.24.76

ZUMAIA